



## Inoizko arrakastatsuen izan da XIX. San Estebango Herri Krosa

**PARTAIDEAK** ▶ 416 korrikalarik hartu zuten parte guztira, eta 400 iritsi ziren helmugara

**IRABAZLEAK** ▶ Evanson Naungu keniarra eta Amaia Intsausti beasaindarra izan ziren lehenak ▶ 2



Amaia Intsausti beasaindarra eta Evanson Naungu keniarra, atzo, krosa amaitu ostean, garaiurrekin. MADDI SOROA

**TOLOSA** ▶

**2-2ko berdinketa UPVren aurka**

3 puntuak Tolosa CFk merezi zituela dio entrenatzaileak ▶ 3

**FELIX IRAZUSTABARRENA** ▶  
TELEBISTA ZUZENDARIA



NEREA URBIZU

**ANOETA** ▶

**Internet bidezko maileguen eta kontsulente kopuruak ugaritu egin dira herriko liburutegian**

Orain urtebete EAEko liburutegien sarean sartu zenetik, 4'5 puntu egin ditu gora maileguen tasak ▶ 4



Haurrak liburutegian. I. GARCIA

«Bertsoak aukeratzeko kalitatea da irizpidea»

‘Hitzetik hortzera’ saioko zuzendari berria da alegiarra ▶ 5

TOLOSA ▶ KIROLA

# Inoiz baino jende gehiago San Estebango Herri Krosean

Evanson Naungu keniarra eta Amaia Intsausti beasaindarra izan ziren garaileak; guztira 416 lagunek hartu zuen parte kalitate handiko lasterketa bilakatu

MADDI SOROA

San Estebango Krosak XIX. urtea bete zuen atzokoan, ez nolahi gainera, parte hartzailerik gehien izan den urtea bete baitzuen 416 lasterkarirekin.

Aurtengo San Estebango XIX. Herri Krosak irabazle bakarra izan du, ordea, Evanson Naungu keniarra izan zen gizonetzkoetan garaipena lortu zuena; emakumezkoetan, berriz, Amaia Intsausti beasaindarrek eskuratu zuen lehen postua.

Gainontzeko lasterkariei dagokionez eta jatorriari begiratu «lasterketa kulturantz» izan zela adierazi zuen Mikel Maiza antolatzaileetako batek. Izan ere, Kenia edota Marokoko lasterkariak izan ziren, atzokoa, besteak beste, baita Euskal Herriko hamaika lasterkari ere. Lasterkarien kalitateari dagokionez, «kalitate handiko korrikalariak» hartu zutela parte agertu du Maizak, horrek «lasterketa arrakastatsua izatea» ahalbidetu zuelarik.

Ibilbidearen inguruan, «ibilbide berriarekin pozik gaude, jendeak gusturago aritu baita lasterka; gainera, trafikak arazoak konpondu ditugu», ziurtatu zuen Maizak. Korrikalari askok azaldu zuten, San Blasera bi aldiz igo beharrak «teknikoki gehiago exjitzten» omen zituen lasterkariak.

## Emakume urritasuna

30 emakumezko soilik izan ziren atzokoan korrika. Maizak esan bezala, «gizon eta emakumezkoentzat sari berdinar jarri ditugu urtero, emakumezko gehiago animatzeko». Antza, arazoa ez dago sarian.



Evanson Naungun keniarra uneoro izan zen lasterketa-buru. M.SOROA



San Estebango XIX. Herri Kroseko irteerako unea. MADDI SOROA

## SAILKAPENA ▶

416 lagunek hartu zuten parte XIX. San Estebango Herri Krosean. Horietatik 400 iritsi ziren helmugara, 16 erretiratu ziren, beraz.

## GIZONEZKOAK

1. Evanson Naungu: 28'53"
2. Briss Densaid: 28'55"
3. Rovazza Elmasiati: 30'03"

## EMAKUMEZKOAK

1. Amaia Intsausti: 37'13"
2. Arantxa Aldalur: 38'40"
3. Noelia Ruiz: 40'03"

## BETERANOAK

Mikel Unanue. 31,58  
Arantxa Aldalur. 38'40

## 1.GO TOLOSARRAK

Joseba Jauregi. 32'58  
Idoia Labaien. 38'21

TOLOSA ▶

## Pasabanek amore eman du Shisha Pangman

Haize hotzaren eraginez oinarrizko kanpamentura jaitsi zen atzokoan

M.SOROA

Hilaren 5ean saiatu zen lehenengoz Ederne Pasaban Asier Izagirrerekin batera Shisha Pangmako —8.027— gailurra zapaltzen. Haize indartsua eta hotza izan ziren atzera botarazi zituen, eta horixe pasatu zen atzokoan ere. Gailurrik egiteko aukerarik ez eta bigarren kanpamenturako bidean sarturiko haizearen ondorioz oinarrizko kanpamentura jaitsi ziren tolosarrak amore emango dutela adieraziz. Ez dira, beraz, Shisha Pangmako gailurra eskuratzen saiatuko.

LEITZA ▶

## 22-4, erraz irabazi dio Barriolak Peñagarikanori

M.SOROA

Lau T'erdiko Txapelketako lehen partida jokatu zuen atzo Abel Barriolak Peñagarikanoren aurka Bergaran. 22 eta 4ko emaitzarekin, erraz gailendu zen leitzarra, erakustaldi aparta eginez gainera.

Sasio betean dagoela erakutsi zuen Barriolak, aukerarik gabe utzi baitzuen Peñagarikano. «Erritmo biziko partida eginda» sasoiko dagoela erakutsi du Abelek.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**TOLOSA ▶ POLITIKA**

## Ikastolak irekitzeko aldarrikapena

**N. Garzia ▶** Tolosako Ikasle Abertzaleko 15 bat lagun Lasakorain Ikastolan bildu ziren atzo «urriaren 12a jai inposatua dela aldarrikatzeko». Aldarrikapen hauek egun honetan ikastola irekitzea izan zuten helburu. Beste zenbait ekitaldiren artean, eguerdian herri kirolak antolatu zituzten: sokatira, lokotx bilketa, zapi jokoa eta pankarta lehiaketa. Aukeraturako pankarta Triangulotik abiatu zen manifestazioan erabili zuten ondoren. N. G.



**IRURA ▶**

## Eriz Magoa gaur 17:30ean Irurako Ikastolan

Erizen humorearen lagun-tzaz umeentzako fantasia eta magia ikuskizuna ikusgai, gaur Irurako Ikastolan arratsaldeko 17:30ean.

**ANOETA ▶**

## Helduentzako eskulanetako ikastaroa

Ikastaroa urriaren 24tik maiatzera arte egingen da asteartero, Hozpel Kaleko udal lokalean. Urriaren 20ra arte eman daiteke izena eta 60 euro balio ditu.

**ADUNA ▶**

## 'Beldur gaua' antzezlan gaur 22:30ean

Laburmetraiak, ipuinak, ezustek... taldeak *Beldur gaua* antzerkia eskainiko du gaur. 22:30etik aurrera izango da ikusgai Adunako Asvinienean.

**TOLOSA ▶**

## Inmakulada ikastetxeko ikasle ohien afaria

Ikasle ohie, 52, 53 edo 54an jaiotze, hilaren 24ean egingo den bazkarian parte hartzeko deialdia luzatu dute. Telefonoak: 943 67 44 79, 943 65 29 68 edota 943 11 76 21. Hilaren 16a baino lehen deitu.

**TOLOSA ▶ FUTBOLA**

**NAIARA GARZIA**

Atzo arratsaldean Tolosan jokatutako partidaren lortutako berdinketak haserre utzi zuen Gorka Etxeberria entrenatzailea. «Partida guztian erasoan jokatzen egondu gara, bideak irekitzen. Lan asko egin dugu eta asko arriskatu dugu». Tolosarrak golaren bila ibili ziren partida osoan; UPVkoak, berriz, kontraerasoan aritu ziren. Lan zailena bi aldiz egin zuten Etxebarriaren ustez, «aurretik jarritz «eta halere emaitza ez zen uste bezain ona izan».

Lehenengo zatia hasi eta 5 minutura sartu zuen Ibanek lehenengo gola buruz, baina 64. minutuan etorri zen berdinketa. Bigarren zatia horrela hasi eta 81. minutuan Jon Txikik penaltiz gola sartu eta 2 eta 1ean jarri zen markagailua. Partidua bukatzeaz zegoela, 86. minutuan, sartu zuten gola aurkariak, berdinketa lortuz. Aldaketei dagokienez, Gorka atera zen Ekhiaren partez, eta gero Ekaitz Kresporen partez.

Askok arriskatu arren ez zuten bere helburua lortu tolosarrak, eta horren adibide garbia partida amaieran bi taldeek izandako erreakzio ezberdinak izan zen: UPVko oso pozik amaitu zuten partida, Tolosa CFk, berriz, triste. Horrela berdinketak esanahi ezberdina izan zuela argi utzi zuten, hau da, berdinketa askoz ere pozgarriagoa izan zela UPVrentzat.

# Lortutako berdinketa «pozgarriagoa izan da UPVrentzat»

Askok arriskatu eta berdinketa lortu arren, amaieran argi utzi zuten tolosarrak emaitzarekin ez zirela pozik gelditu



Bigarren gola ospatzen. M. SOROA

2 akats tekniko izan zituzten tolosarrak Etxebarriaren ustez, baina halere 3 puntuak merezi zituztela azpimarratu zuen. Argi utzi zuten haien helburua «erregularitasunez puntuak lortzea» dela, ahal denean 3, ahal denean 1 eta sailkapenak

ez diola axola. Atzoko partida galdu bazuten ere, pozik agertu zen entrenatzailea, orain arte lortu dituzten 8 puntuekin. «4 partidoro 5 puntu lortzea da niretzat gutxienekoa eta zentzu horretan ondo goaz». Orain arte jokatutako partida guztietatik amorrugehien eman ziona atzokoa izan zela esan zuen, bere ustez 3 puntuak merezi zituztelako.

Datorren asteburuan jokatuko dute hurrengo partida Laudion eta kanpoan jokatzea «zailagoa den arren», puntuak lortzeko asmoarekin joango dira berriz ere.

**TOLOSA ▶ 2 UPV ▶ 2**

**Hasierako hamaikakoa.** Atxu; Lacalle; Jon Txiki; Ibai; Iban; Ekhi; Rincon; Romero; Krespo; Orue; Regillaga.  
**Aldaketak.** Gorka (Ekhiaren

ordez); Ekaitz (Kresporen ordez).  
**Golak.** 1-0: Ibanek 5. minutuan; 1-1: UPVk 64. m.; 2-1: Jon Txikik 81. minutuan; 2-2: UPVk 86. minutuan..


**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Autoa.** BMW M3 urdina, 286 zaldirekin. 1995ekoa. 153.000 kilometro, liburuarekin. 18ko gurpiletako llantak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu 943654143ra.

**LANA**

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635745291era.



**Salgai (Tolosa)** Larramendi kalea. 100m2. Iggogailuarekin. Eraberritako.  
**Salgai (Tolosa)** La Estrella. 93m2. Aparta. Garaiea aukeran.  
**Salgai (Tolosa)** Korreo kalean 75m2. Eraberritua. Iggogailua arakizite lanetan.  
**Salgai (Tolosa)** K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Eraberritua.  
**Salgai (Tolosa)** Tebuxa kalean 50m2-ko atikoa. Eraberritua.  
**Salgai (Ataun)** San Gregorio. 60m2. Eraberritua estreinatzeko.  
**Salgai (Albiztur)** Baserrria. 180m2-ko bi solairu. Eguzkitua bitekina  
**Salgai (Zumarraga)** Baserrria. Bizitzera sartzeko prest. 600m2 lursaila barne. Etxebizitzak 450m2.  
**Salgai (Calahorra)** Bizitzera sartzeko prest dagoen etxea.  
**Alokairua** Lokal komertzialak Tolosako gunerapartean.  
**Alokairua** Pabilioiak Asteasu, Aduna eta Tolosako Usabalén.  
**943 69 71 96 • 675 705 268**  
Korreo Kalea 50

ANOETA ▶ KULTURA

# Internet bidezko mailegu eta kontsultak ugaritu dira herriko liburutegian

EAEko liburutegien sarean sartu zenetik 4,5 puntu egin du gora maileguen tasak

ERREDAKZIOA

Anoetako Udal Liburutegia orain urtebete EAEko liburutegien sare informatikoan sartu ondoren, Internet bidezko kontsulta eta mailegu kopuruak gora egin du, azken sei hilabeteetan Udalak jasotako datuen arabera. Liburutegian 1375 mailegu egin dira, horrek hila-betean batez beste 230 titulu suposatzen du. ELSNeko (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) zuzeneko katalogoan barneratu aurretik, batez beste 220 titulu mailegatzen ziren. Beraz, sare honetan sarzteak maileguak %4,5a igotzea suposatu du.

Liburutegien arteko maileguz dagokionez, hau da, sareko partaide diren beste liburutegietara bidalitako aleak, kanpoko bazkideen sei eskaerei arreta egin zaie. Bestalde, 18 titulu jaso dira, horietatik 3 Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneari dagozkie eta gainontzekoak beste liburutegietatik jasotakoak izan dira. Lehen Koldo Mitxelenara soilik eskaerak luzatzeko aukera zegoen



Bi haur Anoetako Udal Liburutegian irakurtzen. I. GARCIA

eta orain kontsulta eta mailegu zerbitzu honi esker, beste liburutegietara eskaerak egiteko aukera ere zabaltzen da.

OPAC sistemaren bidez eginitako kontsultak—Interneta bitartez ELSN katalogoari eginitako kontsultak—318 izan dira. Kontsulta hauek ondarearen katalogoaren ale jakin bat bila-

tzerakoan, bere eskuragarritasuna behatzen denean... liburutegian bertan eginitako kontsultak egiterakoan suertatzen dira edota ELSNko liburutegiko sarean titulu jakin bat aurkitzen saiatzen denean.

Zerbitzu honek liburutegiko bazkideen kopurua handitzea espero du Udalak. «Duela gu-

txira arte uste ezina zen ondare batera sarbidea eskaintzen duen zerbitzu honek, eskaintzen diren izenburuen kopuruarengatik, hobekuntza kuantitativo nabaria suposatu du, azaldu dute Udaletik; «gainera, hobekuntza kualitatiboa ere suposatu du, hemendik aurrera ikastolako eta unibertsitate-

## ZENBAIT DATU ▶

**Sarea.** EAEko zerbitzu honen bitartez txartel berezi baten jabeek, Internet bitartez eta tokitik mugitu gabe 163 udalerriek osatzen duten 219 liburutegik barneratzen duten ondarea eskura dute.

**Anoetako liburutegiaren ondarea.** Saikaturako eta katalogatutako 8.268 dokumentu ditu. Ale gehienak Udalak berak eskuratzen ditu eta, kasu batzuetan, beste erakundeetatik etorritako bildumak ere eranstean dira, horien artean Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak eskaintitako *Euskadi Generikoa* aipa daiteke, euskaraz argitaratutako 400 alerekin.

**Zerbitzuak.** Une honetan liburutegiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: mailegua, liburutegian bertan egin daitekeen aleen kontsulta eta 12 urtez gairako pertsona eskaintitako Internet zerbitzua.

**Erabiltzaileak.** Liburutegiko erabiltzaileen adin tarteari dagokionez, gazteak erabiltzaile kopuru gehiena osatzen dute.

ko ikasleek eta materia jakin batean interesa dutenek liburutegi bakarrean eskura ezinak diren arloak eta gaiak eskura izan ditzaketelako». Horretarako Udal Liburutegiko ordenagailutik ELSNko katalogo honetan sarbidea ematen duen bazkide txartel berria eskuratzeko besterik ez da behar.

## ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

### Iriarte taberna eta jatetxea itxita

I. GARCIA

Zizurkil Goiko plazan dagoen Iriarte taberna eta jatetxea itxita dago. Irailaren bukaeran utzi zuten esleipedunek. Orain Udala aztertzen ari da zer erabilera eman Iriarteri. Horretarako bilerak egin nahi dituzte aurki Zizurkil Goiko biztanleekin. Marian Lazkano alkateak azaldu duenez, «Zizurkil Goian bizi direnekin eztabaidatu nahi dugu zer erabilera eman daitekeen Iriarteri».

Iriarten orain arte taberna eta jatetxea egon da. Kultur etxe bezala ere funtzionatu du eta hainbat ekitaldi ezberdin egin dituzte bertan. Liburutegia ere badago eta San Millan eskolako haurrek bertan jasotzen zuten jangela zerbitzua aurtengo ikasturtera arte.



Iriarte taberna eta jatetxearen sarrera. I. GARCIA

**IX ARTI/AVALDIA**  
GIPUZKOARTEKO ARTISTAREN AZOKA  
ORDIZIA 2006

**2006 URRIAK - OCTUBRE**  
12 - 13 - 14 - 15  
Ordutegia: 10:30 - 14:00  
Horario: 17:00 - 20:30

**FRONTONES BETI ALAI FRONTOIAK**

FELIX IRAZUSTABARRENA ▶ ETB-KO 'HITZETIK HORTZERA' SAIOKO ZUZENDARIA

# «Telebistarako bertso saioak aukeratzeko, kalitatea da irizpidea»

'Hitzetik hortzera' bertso saioak zuzendari berriarekin abiatu du denboraldia; Felix Irazustabarrenarentzat erronka handia da, baina gustukoa du bere lana

AMAIA ELIZONDO (Berria)

*Hitzetik hortzera* saioak denboraldi berriari ekin dio duela aste batzuk. Aurten, Felix Irazustabarrenak (Alegia, 1961) hartu du zuzendari kargua. Haren esanetan, bertso saiorik onenak eskaini nahi dizkiote ikusleari.

**Zein dira denboraldi berrian *Hitzetik hortzera* saioaren helburuak?**

Aurreko urteetan bezala, bertsoei buruzko saio ona egitea izango da helburu nagusia. Azken finean, beste denboraldien jarraipena egingo dugu.

**Zein da saioaren oinarria?**

Plazaz plaza egiten diren bertso saioak dira gure saioaren oinarria. Hala, igandeko saiora asteko saiorik onenak ekaritzen saiatzen gara. Horrez gain, bertsoaren inguruan elkarrizketak eta erreportajeak egiten ditugu. Horrelakoek kolorea ematen diote saioari.

**Bertso saioak aukeratzeko, zein irizpide erabiltzen duzue?**

Telebistan zer bertso saio emango diren aukeratzeko, kalitatea da irizpide nagusia. Lehenik eta behin, aste bakoitzean dagoen agenda ikusten dugu. Gero, ahalik eta bertso saio onenak grabatzen saiatzen gara. Jaialdi jendetsuak ere kontuan hartzen ditugu.

**Saio txikiak lekuri ba al dute zuen saioan?**

Bai. Leku txikietan egiten diren bertso saioak ere ekaritzen ditugu gure saiora. Halaber, mota eta adin guztietako bertsolarien berri ematen saiatzen gara.

**Aurreko denboraldian arreta handia piztu zuen Euskal He-**



NEREA URBIZU

**rriko Txapelketak. Orain, zein izango dira gai nagusiak?**

Oro har, plazaz plazako saioek beteko dute gure saioa, baita bestelako erreportajeek ere. Ahalik eta bertsolari gehien biltzen duen plazetako saioak harrapatzeko asmoa dugu. Dena dela, Bizkaiko Bertsolari

Txapelketa hastear da, eta horri jarraipen berezia egingo diogu.

**Erronka handia zuzentzat saioko zuzendaria izatea.**

Orain arte Josu Goikoetxea zen saioko zuzendaria. Ni lan taldean ibili naiz azkeneko urteetan, eta zuzendari izatea onartu

nuen. Hasieratik argi eduki dut hemengo lan taldeak egiten duela zuzendaritza. Izan ere, zuzendari izateak bere ardura du, baina talde lana oso garrantzitsua da saioa egiteko. Gainera, lehendik ezagutzen nuen saioaren funtzionamendua.

## BERTSO SAIOAK

«Leku txikietan egiten direnak ere ekaritzen ditugu, mota eta adin guztietako bertsolarien berri emanez»

## ERRONKA

«Zuzendari izateak bere ardura du, baina talde lana oso garrantzitsua da saioa aurrera eramateko»

## BERTSOLARITZA

«Bertsolari berri ugari daude; kalitate aldetik oso ondo dago, orain arte egon den maila onenean, nire ustez»

## Zer deritzozu bertsolaritzak telebistan duen lekuari?

Nik uste dut bere tokia baduela. Astero, bertsolaritzari buruzko saioa eskaintzen dugu. Gainera, pentsatzen dut produktuarekin asmatzen dugula eta funtzionatzen duela.

## ETBk, telebista publikoa izanik, leku handiagoa eman beharko lioke kulturari?

Bai, lekua handiagoa izan beharko luke. Baina hori ETBren filosofia orokorrean egongo da. Bertsolaritzari dagokionez, elkarlana egitea lortu dugu Bertsosale Elkartearen eta ETBren artean. Elkarlan horrek saio duina eta ona egiteko aukera ematen digu guri.

## Ikusle datuak begiratzen dituzue?

Ez da gure ardura nagusia, baina begiratzen diegu. Gure ardura saio ona egitea da. Eta, gainera, pozgarria izaten da jendeak zure saioa ikustea.

## Nola ikusten duzu bertsolaritza?

Oso egoera onean ikusten dut. Bertsolari berri ugari daude, eta kalitate aldetik oso ondo dago. Orain arte egon den maila onenean dagoela esango nuke.

**jantzi**  
**hitza**ren  
**jertseak**

HITZAren egoitzetan salgai

**AMETZ**  
**ESTANKO**

Tabakoa • Prentsa • Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2 • 20271 IRURUA  
Tel.: 943 69 96 51

EHIZA ▶

# Pagausoak hegan ederrak dira

Ehiztariek, biologoek, eta mendia maite duten guztiek dituzte usoak gogoko, baina ez modu berean; alde batekoek dibertitzeko, beste batzuek, aldiz, udazkeneko zeruaren jabe direla ikusteko



Ehiztari bat eskopeta eskuan hartuta, pagauso taldea pasatzen denean ehizatzen prest. HITZA

## INIGO ASENSIO

**A**metsetan Aralarren botatako tiro hotsek esnatu dute goizean goiz Peio. Aitak armairuan daukan eskopeta hotsa ere entzun du, urriko lehenengo astean zeharreko goiz guztietan bezala. Gaur jai eguna da, eta Peio ez du eskolara joan behar; aitak bart gauean esan bezala, uso ehizera elkarrekin joango dira.

Mendirra ehizera joateko irrikaz jaiki da Peio bere aitaren ahotsa entzutean. Argiak piztu gabe, prakak berdeak eta amak prestatutako artilezko jertse orlegi iluna jantzi ditu, «egunsentiak politik bezain hotzak baitira han goian», esan baitzion amak. Bedaiotik jeepa hartu eta abiatu dira biak Leizta aldera, bertan bizi den osaba Joxeanek Usategietan egokitu zaien postu onaz aprobetxatuz. Etxetik atera aurretik, Peio amak afaldu ondoren txukun-txukun mahaiaren gainean jarririkotatu zorroa hartu zuen: «goiza luzea da, eta aspertu egingo zara», zihoen amak, seme kuttuna 7 urterekin oraindik umegegia zela aldi berean pentsatuz.

Joxean osabak ikusi ditu Bedaioko anaia eta Peio semea etortzen. Basakabitik aurrera joan dira elkarrekin aitak ekarritako autoan. Peio bideak estutzen zihoazela sentitu du, begiak biribil biribilak mantenduz, aitaren eta osabaren arteko elkarrizketarekin txundituta. Gaur usoa pasako dela esan dio osaba Joxeanek.

Jarri dituzte bi oinak lurtean: eskopetak sorbaldan hartu, eta Peio pisu askotxo zuten janari motxilak hartu ditu gainean. Hantxe urrutian ikusi ditu lurretik 15 bat metrora zeuden ehiza postuak. Andamioak igoz hasi da aita, eta atzetik semea, esart. Bihotz taupadak indartsu sentitzen ditu Peio, txikitatik ehizera joateko garaian sentitzen den zirrara sentitu du, beste behin. Behin postuan jarrita, eseri egin dira, eta lehenengo eguzki izpi beroak ere hasi dira aurpegian nabaritzen.

Lehenik, motxilan dauden zatoa, otartekoak eta ura atera dituzte. Baina Peio kartuxoak eta eskopeta ikusi nahi zituen, bai baitaki ezin dituela ukitu ere egin. Walkie-talkie bat ere atera du osabak poltsikotik,

«beste postuetan dauden ehiztariak zer edo zer ikusten badute kasu egiteko».

Eroso jarri bezain laster hasi dira begiak eta belarriak adi jartzen. Laster hasi dira walkie-talkiarekin elkarrizketak beste ehiztari askorekin, baina ez da ehiza beti hizpide; «ehizera joateak berarekin lagunartea eta umorea baititu», esan izan dio aitak Peiori. «Lagun artean gustura» daudela jabetu da umetxoak, aspaldiko

usadioa eta indarrez sustraiturik dagoen ohitura baten parte direla aldi berean ikusiz.

Oso garrantzitsua omen da, ehiztarien arabera isiltasuna ere izatea: «usoek basoetan egiten baitute lo, zuhaitzetan, hurrengo goizean Afrikarako bideari berriz indarberiturik ekiteko».

Isiltasuna entzun du hiru ehiztariak une batean, walkie-talkitik uso talde «polit» bat altxatzen hasi dela esan baitute.



Pagauso. Udazkenean ehiztari gehienentzat pagauso da preziatuenetarikoa. Irudian, Leiztan ehizatutako uso multzo bat. HITZA


Hasi da bat batean «kristoren soinu burrunbatsua eta hotsa entzuten» urrutian, zulo batetik hodei urdin zoragarri bat ikusi dute ateratzen. «Horiek usoen sabelak dira, Peio. Mendirra ehiza egitera gatozenez, hau da ikusiko duzun gauzarik zoragarriena: usoak hegan, denak batera, haietako bat beste bidea zuzentzen eta erabakitzen, eta ezerezetik ateratzen den hots isiltzailea». Aitak semeari aitortu dio. Bitartean, uso-taldea begiratzen gelditu dira hirurak, eguneko ehizta ederrena bizitzeko ari zirela konturatzen ari ziren bitartean.

## Errealitatera bueltatuz

Asko dira eskualdeko ehiztariak: 3.500etik gora federatuak, duela 10 urte bezalatsu. Herri askotan elkarteak nahiz zozketak egiten dira, baina bakoitzak bere egiteko modua dauka. Federazioak ezarritako arauak bete behar dituzte denek, eta komunean herri guztiek dituztenak hauek dira: postu bakoitzean gehienez ere bi eskopeta izan daitezke, eta ideala ere, bi lagun postu bakoitzeko. Kartuxo mota zehatz batzuk erabili daitezke usoren ehizan: aurtin, txikiagoak izan behar dira, «usoak gutxiago sufritu dezan».

Herri bakoitzak bere barrutiak izaten ditu, eta horietara ehizera joateko ere baldintza batzuk bete behar izaten dira. Gehienetan zozketa egiten da, batzuk egunero eginez, hala nola, Albizturren, Abaltziskan, Lizartzan, Berastegin, Txaraman, Hernialden edo Amasnan. Beste batzuk behin bakarrik edo inoiz ere ez. Leiztan behin, Areson enkantea... Orendain, edo Ikaztegiatoko kasuetan adibidez, ez da ezer ere egiten.

Eskualdeko ehiztari asko eman dituzte datuak eta baita Alberto Luengo biologo tolosarra ere. Haiei esker ehizari buruz gehiago jakinen dute irakurleek. Alberto Luengok bi alde bereizten ditu ehizera joaterako garaian: bata, «alde etiko», eta bestea «teknikoki ehizak egin dakioken kaltea». Azken hau, Luengoren ariora «ez da ia kaltegarria, ehizatzen denaren portzentaia oso baxua delako». «Baina», gehitzen du biologoak «kontrapasan oraindik ehizatzen duen jendea ere bada, eta garai horre-



**Postuak txukuntzen.** Asko dira ehiza garaia hasi aurretik postuak txukuntzen dituztenak: ohiak berriaz estali, margotu, garbitu, eta han ordu luzeak pasatzeko egokitu. Taldeko bat bildu eta denon artean egiten dute lana. Leitzan irailean hasi ziren behar hau egiten. IÑIGO ASENSIO



**Postua, zerua ukitu nahian.** Usoetan aritzeko gehienetan postuek zuhaitzen altuera hartzen dute, zeru zati garbiak errazago ikusteko, eta nola ez, uso-taldeak datozenean eskopetak prest izateko. N. URBIZU

tan hiltzea kaltegarria da oso, usoek kumea egin behar duten garaia baita».

Udazkeneko ehiza, beraz, ez da kaltegarria, beti ere «legea betetzen bada». «Okerrena», gogoratzen du tolosarrak, «kartutxoak ez biltzearena da: berez, eta legez bildu egin behar dituzte, baina ez da hori beti betetzen. Nik behin baino gehiagotan mendian poltsak lepo jaso izan ditut». Kartutxo hauek asko kutsatzen dute mendia, balak oso kaltegarriak dira, batez ere leku hezeetan». Mendiko paseok ez dira erosoak ehiza garaian, «hotsarengatik, eta era batean arriskua ere dagoelako... Ehiztariantzat ez da erraza dauden mugak errespetatzea».

«Ehiza ez da tradizioa, ez eta kirola ere», dio Alberto Luen-gok, ehiztari askok «hori baitiote». «Ehiza folklorea da, jendea eskopeta hartuta doa, eta askok denbora gutxian ahalik eta gehiena ehizatu nahi izaten dute, beste asko autoz joan ohi dira postuetaraino...» Gogora ekarri zuen ere, «gure aitonek ziurrenik behararengatik» ehizatzen zutela, eta «kristoren bueltak egiten zituztela mendian. Gaur egun, oso gutxi egiten dute hori».

Usoaren ehizak zehazki kalte egiten ez badu ere, Albertok bezala beste askok, ez diote zentzua ikusten: «zertarako ehizatu? Norentzat?», esaten du biologoak. «Gozatzeko da: denbora pasatzeko. Ez du beste funtziorik betetzen».

Kontuak kontu, Peio bezalako ehiztari sena duten pertsonak badaude, eta urriaren usainarekin batera barruko indar bitxi batek ehizera joateko beharrera bultzatzen ditu ehiztariak.



**Ehiza postuetako enkantea.** Areson bitan egiten da enkantea. Bertan jende asko biltzen da: aurten lehengo urtean baino gehiago, eta denak 27 postutatik baten bat erosteko. JAIONE ASTIBIA

**JOSEBA AIESTARAN** ▶ LEITZAKO EHIZA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

## «Ehizak ez dakit zer duen, baina dakiguna da, urte osoan garai honen zai egoten garela»

Joseba Aiestaran leitzarrak hiru urte daramatza Leitzako ehiza elkarteko lehendakari. Dirudiena baino lan gehiago eskatzen duen kargua dela aitortzen du ehiztariak.

**Zenbat bazkide zarete?** Osozara 345. Gero beste 70 bazkide, eskubide gutxiagorekin: asko, horren herri txiki baten zentzat. Ehiza-barrutiak 5.531 hektarea; horren ariora, jende asko. Gainera, gero eta gehiago dira: baja gutxi izaten dira urtean zehar. Horrek zozketa bidezko 103 postuetan egoteko aukerak murrizten ditu, noski.

**Uso gaixoa lurtean hilik...**

Pena, baina ez gehiegi ere. Gauza guztietan pentsatzen jarriko bagina ziur baietz... Ezin da horretan pentsatu. Orain, gutxi egonen balira gehiago, baina asko dago, eta horrek ez dio ekosistemari kalterik egiten. Iaz 1.300 uso hil genituen.

**Zer da ehizak duen hori?** Ez dakit, zaila da azaltzeko. Dakiguna da urte osoan garai honen zai gaudela. Hoberena lagun artean egotearena izan daiteke, lagunekin gozatu, eguna ongi pasatzea. Iraila eromena izaten da, bai ehiztarien artean, eta baita zuzendaritza lanetan gabiltzanontzat.

**Ehiza garaian asko, eraldatu egiten dira...**

Izaeran aldaketak ikusten dira: urduri daude asko, kristoren ilusioa nabaritzen da. Batzuk itsututa daude, obsesionatuta bezala, baina hori ez da osasuntsua.

**Isileko ehiztariak oraindik ere badira?**

Bai, bai, badira. Horiiek harra-patuz gero isunak izaten dituzte. Hil behar ez dena hiltzen dabilena ez da ehiztaria. Auzartzen denak kexua azaldu behar du eta orduan eman beharreko pausoak emanen lirateke. ◀



**AGENDA ▶**

**DEIALDIK**

**Tolosa.** Sorkun bakarlararen eta Moksha talde kataluniarraren kontzertua Bonberenean, 22:30etik aurrera.  
**Amezketeta.** Euskara Elkarteak eta Gazte Taldeak igande honetan Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuta dute. Horretarako, lehen bait lehen eman behar da izena ohiko tabernetan edota Zumadi eskolan.  
**Tolosa.** Indiako Samanvaya taldearen dantza klasikoko emanaldia izango da bihar ikusgai, Leidor aretoan, 20:15etik aurrera. Sarrera, 10 euro.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Ibarra.** Iñaki Vergara argazkilararen *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa ikusgai Kultur Etxean, hilaren 16ra arte.  
**Tolosa.** *Espertiñak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El viento que agita la cebada* filma ikusgai, Leidor aretoan, 22:30ean, 4,5 euroen truke.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Larraia, MI. Elbarren, 36. 112.  
Tolosa. Moran, R. Zabalarreta, I. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...  
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.  
22:00-23:00. *Street*.  
▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Iñaki Landabea, Aitor Olano eta Ugaitz Artola. N. GARZIA



Maratoiaren helmugan zenbait txirindulari. N. GARZIA

# Beste behin jaiari eutsiz

**TOLOSA ▶ Berazubiko jaiak lehen bezala ospatu ez dituzten arren, bertako bizilagunek jai eguna antolatu zuten atzo, musika, kirola eta paella janarekin**

**NAIARA GARZIA**

**A**urten jaiak bertan behe-urte dituzten arren, jai egun bakarria ospatzeari ez zioten uko egin Berazubiko bizilagunek: txistulariek auzoko kaleak alaitu zituzten goizean goiz, eta 11.00etan Tolosako Mendi Bizikleta Maratoia ospatu zuten. Mendikute KK elkarteak antolatu zuen ekitaldia eta hainbat lagun laguntzarekin dena prestatu zuten maratoia ondo atera zedin.

Joxe Angel Pradini antolatzailaren arabera 70 inguru txirindularik hartu zuten parte, eta 45 kilometrotakoa izan zen ibilbidea. Txirindulariek ez zuten dortsalik jantzi, hau da, federatua egotea ez zen beharrezkoa bertan parte hartze-ko, azken finean maratoia herrikoia baitzen: edonork harrezakeen parte. Aitor Olano eta Ugaitz Artola iritsi ziren lehe-



Berazubiko bizilagunek prestatu zuten paella jatea. N. GARZIA

nengoak eta bakoitzak txanpain botila bana eta Esait-eko kamiseta bana jaso zuten antolatzaileen eskutik. Hauen ondoren Iñaki Landabea iritsi zen. Partaide guztiek jaso zuten sariren bat: gurpil azalak, kaskoak... banatu zituzten denen artean.

Jaiari jarraituz eguerdian paella jatea antolatu zuten Berazubiko bizilagunek. Aurreko urteetan lehiaketa egiten zuten arren, aurten «jendeak parte hartzeko gogo gutxi zuenez» ez antolatzea erabaki zuten eta ongi pasatzeko aitzakiarekin bazkaria prestatu zuten bizilagunek. 13:00ak aldera hasi ziren dena prestatzen eta 14:30ak alderako jada paellak prest zeuden. Postreak ere bizilagunak etxean egin zituzten eta guztien laguntzarekin bazkari goxo dastatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenek.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Ziortza Iturriz Irigoien (Tolosa). Gaur 3 urte.  
Zorionak familiaren partetik.

**URTE ASKOAN**  
Zorionak Beñat! Gaur urtebete gehiago.  
Amasa-Villabona.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa